



MARINE STEWARDSHIP COUNCIL



ARRANTZA JASANGARRIAREN HASTAPENAK



EZTABAIDA: ZERGATIK BEHAR DUGU ITSASOA?

OZEANOAK EZINBESTEKOAK DIRA
LURREKO BIZITZARAKO.
PLANETAREN AZALERAREN% 70
BAINO GEHIAGO HARTZEN DUTE,
KLIMA ERREGULATZEN DUTE ETA
BIZITZEKO BEHAR DUGUN
OXIGENOAREN% 50 ETA% 85
ARTEAN EMATEN DUTE.



GURE OZEANOETAN BIZI-
BARIETATE IZUGARRIA DAGO.

PERTSONA ASKOREN BIZIBIDEA
DIRA.

MUNDU OSOAN MILA MILIOI
PERTSONA BAINO GEHIAGO
ARRAINAREN MENDE DAUDE
ELIKAGAI-ITURRI NAGUSI GISA.





BAZENEKIEN ARRAINAK DELA MUNDUAN GEHIEN
MERKATURATZEN DEN ELIKAGAIA?

ARRANTZA-INDUSTRIAK

200 MILIOI PERTSONA

ENPLEGATZEN DITU MUNDU OSOAN, BESTEAK BESTE:



ARRANTZALEAK



PROZESOREAK



GARRAIOLARIAK



SALTZAILEAK


BAINA GIZA JARDUERAK
ARRISKUAN JAR DITZAKE GURE
OZEANOAK.

AZKEN 50 URTEETAN, ITSAS
ANIMALIEN POPULAZIOEN
KOPURUA IA% 50 MURRIZTU DA
MUNDU OSOAN.



GEHIEGIZKO ARRANTZA
GIZAKIAK ARRAINEN ETA
ITSASKIEN UGALKETA-
AHALMENA BAINO
HANDIAGOA DENEAN
EGITEN DUEN GEHIEGIZKO
ARRANTZA DA.





BA AL ZENEKIEN ITSAS IZAKI GUZTIAK ELKARREN MENDEKO HARREMAN-SARE BATEN BIDEZ KONEKTATUTA DAUDELA? HORREGATIK, ESPEZIE BATI ERAGITEN DION HORREK BESTEEI ERE ERAGINGO DIE.

OSO GARRANTZITSUA DA MODU
IRAUNKORREAN ARRANTZATZEA!

ARRANTZA JASANGARRIA ITSASOAN
ARRAIN NAHIKOA UZTEN DUENA DA,
MODU MUGAGABEAN UGALTZEN
JARRAITU AHAL IZATEKO.

GAINERA, ARRANTZA IRAUNKORRAK
ERAGIN TXIKIA DU BESTE ANIMALIA
BATZUENGAN (DORTOKAK, IZURDEAK,
ETAB.) ETA ITSAS INGURUNEAN.



MODU IRAUNKORREAN
ARRANTZATZEKO, ARRANTZALEEK
AHALIK ETA EZAGUTZA
ZIENTIFIKO ONENA IZAN BEHAR
DUTE HARRAPATU NAHI DITUZTEN
ARRAIN ETA ITSASKIEN
POPULAZIOEI BURUZ ETA BIZI
DIREN ITSAS INGURUNEARI
BURUZ.



HORREGATIK, ZIENTZIALARIEKIN LAN EGITEN
DUTE, ETA ARRAIN-POPULAZIOAK DENBORAN
ZEHAR NOLA HAZTEN ETA GUTXITZEN DIREN
ULERTZEN LAGUNTZEN DIETE.




ARRANTZALEEK BESTE NEURRI BATZUK HARTZEN DITUZTE ITSAS MUNDUAN GUTXIENeko ERAGINA IZATEKO, ADIBIDEZ:

1. HUTSUNE LIBREAK UZTEN DITUZTEN SAREAK ERABILTZEN DITUZTE, ARRAIN TXIKIEK IHES EGIN AHAL IZATEKO.

2. ITSAS HEGAZTIAK UXATZEKO KOLORE BIZIKO LERRO TXORIMALOAK ERABILTZEN DITUZTE, ARRANTZA-APARILUETAN HARRAPATUTA GERA EZ DAITEZEN.

3. TEKNOLOGIA ERABILTZEN DUTE ARRANTZATZEN DITUZTEN ARRAINAK DETEKTATZEKO ETA GAINERAKOETATIK BEREIZTEKO





ARRANTZALEEK MODU IRAUNKORREAN ARRANTZATZEN DUTENEAN,
BADAKITE ITSAS BALIABIDEA EZ DELA AMAITUKO, ETA HORREGATIK
ARRANTZATZEN JARRAITU AHAL IZANGO DUTE ETORKIZUNEAN.

NOS GUK ETA HURRENGO BELAUNALDIEK ARRAINAZ GOZATZEN JARRAITU
AHAL IZANGO DUGU, BETIRAKO.

MSC ZIGILU URDINA ARRANTZA JASANGARRIA EGITEN
DUTEN ARRANTZALEEK JASOTZEN DUTEN SARIA DA.



SUPERMERKATUAN MSCREN ZIGILU URDINA DUEN ARRAINA
AUKERATZEN DUGUNEAN, BADAKIGU ARRANTZA IRAUNKOR ZIURTATU
BATETIK DATORRELA.

